

Iñaki Antignedad

Zaharra berri, asmatu arte

G

urean izan den azken (?) gertakari entzutetsutik abiatuko naiz, hango Auzitegi Konstituzionalak hemengo kontsulta-legea ezerezean utzi zueneko. Zaharra berri. Beti pentsatu dut hango justizia estatu-arrazoia duela politizatuta; kasuak nonahi. Baina Konstituzionalaren epai hori ez nuke politizazio horren adibide jarriko. Izan ere, konstituzioa blindatzea helburu duen epaitegiak horixe egin du, garbi utziz lehendik ere garbi zegoena, egungo markoan erabaki-subjektu bakarra dela; badakigu zein. Markoa aldatzea posiblea dela ekarri du epaiak gogora, beti ere markoak berak eskainitako bidetik joanda, eta Gorte Nagusiekin egiten dugu topo. Hemeroteka argibide. Bere horretan ixten da gaurko markoaren zirkulua. Azken 30 urteetan izan da horrela eta beste horrenbestean izan daiteke, hori gaingiditza izan ezean. Lehendakariak gidatu duen planari behintzat jende askoren begietan erabakitze-erabakitea ezin gauzatzeko benetako horma zein non den agertu arazi izana errekonozitu behar zaio. Beste gauza da helburu hori zutenentz.

Horma hor, sinetsi ote lezake planaren aldekoen batek euskal jendartea erabaki-subjektua izatea gaurko markotik etorri daitekeela? Grabitate-legea asmatu zuenak zioena gogoan: “Arazo bat ezin da gaingiditu bera sortu duen pentsaera bertatik”. Eta markoa arazoa dugu, hori gaingiditzen asmatu arte, subjektuen talka emankorrean, pentsaera propiotik abiatuta, traba guztiak bazter uzteko konpromisoaz. Zaharra berri hau ere. Horretarako baldintzak sortze bidean badira argitu beharrekoak, arbolek basoa ezkutatu ez dezaten.

EKIMENA POLITIKOA ALA JURIDIKOA? Erabaki-subjektua sortzeko bidea politikoa da guztiz. Hori garbi izanda ez dut aparteko arazorik ikusten juridikoki horra-hara joateko, Estrasburgora bada ere, baina beti juridikoa politikoaren menpeko. Gainera,



DANI BLANGO

eskubideen urraketa salatzeko bada, erabakitze-erabakiteko gain beste hainbat datozkit burura salatzekoak, bertatik bertara.

HEMEN ALA HAN? Markoa aldatzeko giltza hemen forjatu behar da, atea han bada ere. Ekimen politikoa hemen eta hemendik sustatu behar da, ekinez. Lehendakariak udako jardunaldi batean enpresari berritzaileei esana gogoan: “Lozorrotik atera, ekintzaileak izan”. Badu berak ere non eta zeri ekin, berritzailea izateko.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA ALA KONTSULTATUA IZATEKOA? Lehenengoak bigarrenaren derrigortzen du, bigarrenak, oster, ez lehena. Ez ditzatela parean jarri. Demokrazia ulertzeko modua. Lehendakariak udako ikastaro batean zioen ez duela: “Anestesiaturta dagoen demokraziarik nahi” eta “euskal gizarteak erabakietan gehiago parte hartu behar” duela. Itxura batean ez zen ikastaroan matrikulatu. Ez al daki zenbat anestesista dituen Lakuan? Ez dadin engainatu, markoa aldatu gabe ere hamaika aukera du parte-hartzea bideratzeko, honetaz edo hartaz, txikitik handira, bide batez subjektu politikoa gizenduz. Lakuako subjektu askoren erabakiak indargabertzeko beldur ote?

Erabakitze-erabakiteko eskubidea da koska, baina horren beharra espektro abertzalearen logikatik atera eta jendartean zabaldu behar da. Izan ere, jendeak erabaki-guneak hurbil izan eta sentitzea funtsezkoa da, ez bakarrik demokrazia parte-hartzailea sendotzeko; baita gaurko globalizazioak dakartzigun arazoei, ekonomikoei kasu, hobeto aurre egiteko ere.

Tira, urriaren 25ekoa egoera desblokeatzeko omen zen; egun horretan baina blokeoak bere horretan iraungo du, argi goa iraun ere. Markoa aldatu beharra daukagunok horretarako baldintzak sortu behar ditugu. Eta mantendu. Lizarr-Garaziko hutsuneak gogoan. Testuak kontestua behar duelako. ■

Lehendakariak udako jardunaldi batean enpresari berritzaileei esana gogoan: ‘Lozorrotik atera, ekintzaileak izan’. Badu berak ere non eta zeri ekin, berritzailea izateko